


SEGMENTAZIOA

Aplikazio hau etxeko jabe diren, edo etxearen ardura duten pertsonentzat zuzendua dago, baita ere mugikorraren bitartez kudeatzeko ideia minimo bat duten pertsonentzat.

Gaur egun, Espainia inguru eta Europa inguruan, pertsonak 26-29 urterekin joaten dira bakarrik bizitzera, beraz 26 urtetik gorako pertsonentzat sortuta dago. Baita ere salbuespen batzuk aurki ditzakeguz, adibidez, gaur egun kanpora ikastera joateko edo Erasmus bat egiteko... ohitura nabarmena dago. Kasu hauetan 18 urtetik gorakoa izanda ere, aplikazioa erabili dezakezu.

Beraz printzipioz 18 urtetik gorako pertsonentzat pentsatuta dago, baina gehienbat 26 urtetik gorakoentzat.

Aplikazio hau Espainian bizi direnen eskura bakarrik dago momentuz.



Merkatu segmentu masiboa ukitu egingo dugu. Aplikazio hau erosten duten bezeroak, helburu komun eta zehatz bat dute: etxeko domotikaren kontrol bat izatea eta domotika programatu ahal izatea era seguru, merke eta erraz batean bidez.

Ez dugu bezero limite bat finkatu, aplikazioa berria da eta gero eta bezero maila gehiago handitu, langileen plantila handitzen joango gara, bezero guztiei zerbitzua eman ahal izateko.

Bezero garrantzitsuak denak izango dira, azkenean denok ordaintzen dute diru kuota berdina eta denei eskaintzen zaie zerbitzu berdina. Bezero garrantzitsuenak etxetik kanpo ordu asko botatzen dituztenak izango dira, azken finean aplikazioaren erabileraren behar handiago izango dute.